

Gabonetan GUAÍ



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Soldadu batek esaten dio beste bati:

- Zer ari zara egiten?
- Nire emazteari gutuna idazten.
- Eta zergatik idazten duzu hain poliki?
- Nire emazteak ez dakielako azkar irakurtzen.

Asier

Indio bat tabernan sartu eta esan dio tabernariari:

- Zuk whisky gogorra eman, bestela indioak ez ordaindu.

Gizonak whisky gogorra eman dio baina indioak:

- Whisky hau ez da gogorra. Indioak ez ordaindu.

Hurrengo egunean gauza bera:

- Whisky gogorra eman, bestela indioak ez ordaindu.

Tabernariak whiskyarekin batera bolbora-hautsa bota dio.

Hurrengo egunean indioak:

- Whisky arinagoa eman, atzo indioak puzkerra bota, zaldia hil.

Lara Hortelano



Baserri batean txerria eta oilarra jaiotzen dira, aldi berean. Urtebete geroago zein izango da nagusiagoa? Oilarra. Txerriak urtebete izango duela eta oilarrak urtebete eta "piku".

Xabier Sologaitua

- Etxekoandrea etxean al dago?
- Ez, ez dago etxean, kanpoan da.
- Eta noiz etorriko da?
- Itxaron, oraintxe galdetuko diot-eta.

Luar Garcia de Amezaga

- Gaur eskubaloiko talde batean izena ematera joan naiz. Baina ikusmen arazo bat dudanez ez naute jokalaria bezala onartu. Baina pozik nago, beste postu bat eman didatelako.
- Zein postu ordea?
- Arbitroarena.

Carlos

JUAN ANTONIO MOGEL ikastolan iaz hasitako asmoarekin jarraitzen dugu aurten ere, hau da, Ahotsak.com web gunea ikasleei zabaldu bertako aberastasunez aprobetxatzeko. Hori jakinda web gunea kudeatzen duten taldeko bi partaide gure ikasleak bideoan grabatzera etorri ziren. Hasieran 5. mailako ikasleak Eibarko Miguel Gallastegi pilotariaren pasarte batzuk entzun eta ikusi zituzten. Ondoren, bakoitza bere ordenadore txikian interesatzen zitzaizkion pasarte edo gai ezberdina bilatzen aritu zen. Guzti hau egiten ari ginela Ahotsak.com-eko Idoia eta Haizeak bideo grabaketatxo bat egin ziguten euren web orrian txertatzeko asmoz.



URKIZUko eskolakoek azaroan Gaztañerre eta San Andres egunak ospatu genituen, eta oso ondo pasatu genuen! Abendua hasieran 3. Mailako ikasleek igeriketa ikastaroak egin zituzten Orbeako polikiroldegian. Abenduaren 18an, 1go zikloko ikasleak "Erreka Mari" txotxongiloen antzerkia ikusteko aukera izan zuten eskolan bertan. Abenduaren 20an Haur Hezkuntzako txikiak Olentzeroren bisita izan zuten, opari eta guzti! Eta abenduaren 21ean, Urkizuko ikasle eta irakasleak kalejiran ibili ziren, primeran!

LA SALLE ikastetxeko 4. mailakoak Olentzeroren etxera joan ziren abenduaren 11n, eta primeran pasatu zuten! 19an, eskolan, Gabonetako ospakizuna egin genuen eta maila guztiek hartu zuten parte, tarimaren gainean gabon-kanta abestuz eta antzerki txikitxo bat ere egin zuten.




ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxeko LHko 3. eta 4. mailako ikasleak "arteak ikasbide" proiektuaren inguruan, Guggenheim museora lehenengo bisita egitera joan ziren azaroan; bertan zegoen erakusketa bat ikusi eta horren inguruko tailer bat egin zuten. Gaztañerre eta San Andres jaiak ere ospatu ditugu ikastetxean. Abenduaren 3an, Euskara Egunarekin bat eginez, Toribio Etxebarria lehiaketan parte hartzeaz gainera, udaletxean antolatutako irakurketa saioan ere izan ginen. Eta eskolan bertan ere ekintza bat egin genuen egun berezi hori ospatzeko. Gabonetako lanetan jardun dugu azken egunetan buru belarri, krisma lehiaketa egin dugu eta Olentzeroren kalejiran ibili ginen auzoan zehar. Gabonetako opor bueltan kontatuko dizuegu nola atera den guztia. Zorionak eta Urte Berri On!





SANANDRESAK 2012

DENBORAPASAK



Erlantz L.



Julen Baroja


KIROLAIK

F	U	T	B	O	L	A	S	K	O	M	N	N	O	P	L	S	T	B	E	O	
K	O	S	A	S	K	L	O	M	S	T	A	B	D	K	J	O	S	E	R	L	
E	J	U	D	I	A	L	O	B	I	E	L	O	B	P	O	A	J	M	R	A	
S	T	P	M	O	J	S	O	P	E	N	T	A	L	K	L	U	O	N	U	N	
K	X	H	I	W	H	X	I	W	A	T	E	R	P	O	L	O	A	O	G	T	
U	A	I	N	A	I	P	K	O	Z	H	X	I	B	P	I	S	W	K	T	B	O
P	G	B	T	T	K	O	M	S	T	O	L	S	O	M	R	A	T	L	I	S	
I	Z	F	O	O	J	S	O	T	P	K	I	W	H	A	I	M	A	A	P		
L	M	J	N	M	L	H	E	X	I	E	K	J	X	O	K	O	O	B	O	A	
O	W	T	A	P	M	N	O	K	B	O	L	T	L	M	K	L	L	S	S	N	
T	O	S	E	L	I	J	S	L	S	J	S	A	L	S	J	A	S	T	P	K	
A	P	K	X	S	P	R	Z	T	P	K	B	S	T	I	U	B	L	S	A	L	
E	S	K	A	L	A	D	A	X	R	U	P	N	O	T	O	I	S	K	T	R	
L	R	F	I	P	S	T	R	O	K	Q	T	U	V	E	L	I	N	M	I	O	
J	P	Z	U	A	N	O	W	S	U	P	L	K	H	L	P	S	C	F	N	M	
M	N	H	O	W	B	M	E	N	Z	A	L	V	O	T	E	A	L	D	A	R	
O	T	D	T	S	K	A	D	T	O	N	T	O	Z	A	J	S	G	J	I	L	
B	U	S	O	M	L	H	A	L	T	E	R	O	F	I	L	I	A	S	A	P	
J	G	P	L	N	W	A	T	E	S	L	A	B	O	E	F	G	H	I	J	K	

- FUTBOLA
- ERRUGBIA
- ESKUBALOIA
- ATLETISMOA
- PATINAI
- ESKUPILOTA
- SASKIBALOIA
- WATERPOLOA
- JUDO
- HALTEROFILIA
- ESKALADA
- BOLEIBOLA
- BADMINTONA
- TENISA
- BEISBOLA

Julen Maguregi

Imes Martinez



1. Bordea
2. Horia
3. Laranja
4. Urdina
5. Larrasa
6. Ousa
7. Gornia

Gabonak ailegatu dira!

Azkenean, hainbeste denbora itxaroten egon eta gero, iritsi zaizkigu Gabonak eta Gabonekin batera baita oporrak ere! Orain egun mordoa dituzue aurretik ondo pasatzeko, eta horretarako aukerak ere ez dira gutxi.

Astlehenean oso egun berezia izango dugu, abenduaren 24a badakizue egun berezi eta magikoa dela? Badakizue nor datorren, ezta? Gure Olentzero! Honezkerok gutuna ere idatzita izango duzue, pentsatzen dut. Eta ondo portatu zarete? Zintzoak izan zarete? Badakizue Olentzerok dena dakiela eta jakin badaki

ondo portatu zareten edo ez, eta horren arabera opari gehiago edo gutxiago jasoko dituzue. Baina egon lasai, nik badakit-eta formalak izan zaretela urte osoan, eta horren trukean oso opari politak jasoko dituzuela.

Baina Gabonak ez dira opariak bakarrik. Familiarekin eta lagunekin denbora gehiago pasatzeko egun aproposak dira. Afariak eta bazkariak, lagunekin jolasteko denbora gehiago, opariekin jolastu eta gozatu... Baina ez ahaztu eskolako etxeko lanak ere egin beharko dituzuela, bestela urtarrilean berriz ere eskolara



bueltatzerakoan aldapan gora egingo zaizue-eta.

Olentzero Eibarko kaleetan barrena ibiliko da astelehen arratsaldean, 18.00etatik aurrera, baina horrez gain bestelakorik ere izango da gure herrian. Adibidez, Guai umeentzat parkea zabalik egongo da abendua-ren 26, 27, 28 eta 29an eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an. Kontuan izan aurten Astelena frontoian izango dela. 5 eta 12 urtera arteko umeentzat izango da, eta ordutegia 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.30etara. Gauza pila bat egongo dira bertan: zezen mekanikoa, tailerrak, puzga-

riak, rokodromoa... Sarrerak Eibar Merkataritza Gure Irekiak banatutako bonoen bitartez lor daitezke edo Astelenako takilan bertan, zabalik dagoen egunetan.

Eta urtarrilean Errege Magoak etorriko dira. Kabalgata 5ean izango da arratsaldeko 19.00etatik aurrera. Olentzeroren kalejiraren eta Errege Magoen kabalgataren ondoren, azken gutunak jasoko dituzte udaltxean.

Ez duzue beraz, aspertzeko denborarik izango. Ondo pasa, maritomasa!, eta datoren urtera arte! 2013 zoriontsua!



Nagusixen eta umien artian desberdintasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu, baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

Zelan ospatzen dozuz/zenittuan Gabonak?

IKER AGUILAR, 7 URTE

Lelengo Olentzerori kartia idazten detsat, eta Gabonetatik gehixen gustatzen jatan momentua Olentzeron oparixak jasotzen dittudanian da. Familixiakin denpora gehixago pasatzen dot eta hori be asko gustatzen jata. Guai parkera be juango naiz, baina ikastolako etxeko lanak be egingo dittut!

LORE ALVAREZ, 10 URTE

Olentzero etorri baiño lehen, arratsaldian kalera urtetzen gara Irati ahiztiakin eta lehengusu-lehengusiñekin, gero danak alkarrekin amamaren etxian afaltzen dogu. Gabian bertan trankil egitten dot lo, erregaluak gure etxian eta Markiñan hartzen-dittugulako. Beste egunetan lagunekin GUALra juaten naiz.

NAGORE MENEZO, 37 URTE

Nik familian pasatzen nituen Gabonak. Gasteizera juaten nintzan eta han pasatzen nittuan Gabonak. Han jaiotza haundi bat jartzen dabe eta hura ikustia asko gustatzen jatan. Egunik polittena Errege Eguna izaten zan, kabalgatia ikusi eta gero erregaluak jasotzia.

MARIAN MALAXETXEBERRIA

Gure sasoian diferentiak izaten ziran gabonak, erregaluak bihar izaten genduazen gauzak, barruko arropak, eskolarako materixala-eta izaten ziran. Basarrixan pasatzen genduazen eta basarri batetik bestera juateko ohitturia eguan eta ume mordua batzen giñan. Jateko orduan azia, karakolak, makillava eta sagar-konpotia ez ziran sekula falta, gurian oindiok be hórretxek ipintzen dittue.





Internet aisialdi, ikasketa, irakurketa eta komunikazio tresna ezinhobea da. Baina kezka asko sortzen dizkigu gurasooi: "Noiz eta nola hasi behar da nere seme-alaba internet erabiltzen?". Iritziak ere era askotarikoak dira; batzuk ahalik eta beranduen hastekoaren aldekoak dira, arriskutsua izan daitekeelakoan edo. Baina era honetako aurreiritziak alde batera laga eta sareak dituen alde onaz baliatzeko trebetasun kritikoak eskaini beharko genizkieke etxeko txikiei.

Umeekin interneten ibiltzeko orduan...

- Saiatu gaiaren gainean informazioa lortzen. Badaude internet erabiltzearen arrisku eta onurak jasotzen dituzten eskulib uru eta foroak.
- Internetek eskaintzen dituen tresnak erabili edukiak, hitz konkretuak, irudiak eta abar blokeatzeko, konexio denbora kontrolatzeko, bisitatutako orriak erregistratzeko...
- Ez larritu. Interneten ibiltzeko oinarritzko ezagutza batzuk ezinbestekoak dira eta arduratsuak izan behar gara bisitatu ditugun orriekin, baina ez dago obsesionatzeko beharrik. Badaude orrien kalitatea bermatzen dituzten zigiluak, esate baterako IQUA (Agencia de calidad de internet) eta AEMPI (Asociación Española de Padres y Madres internautas).

Elkarrekin nabigatzeko orduan, gogoratu:

- Berba egitea da biderik egokiena. Sarean nabigatzea nahiko intuitiboa izan badaiteke ere, azaldu zure seme-alabari zer egingo duzuen; ipuinak edo bideoklipak ikusi, lagunen bati mezua idatzi, gai zehatz baten gaineko informazio zehatza lortu (animaliak, lekuak...)
- Bisitatu dituzuen web orriak alde aurretik ikusteak, zure seme-alabaren parte hartzea sustatuko du. Umeak ematen dituen erantzunen gainean zure komentarioak tartekatu eta saiatu begiratzen ari zareten hori beste era bateko euskarrietan ere lantzen (liburuak, DVDak...)
- Zure seme-alaba gero eta autonomoagoa izango bada ere, jarraitu bere aldamenean egoten. Modu horretan, nagusitzen denean ez zaio arraroa egingo bisitatu dituen web orriengan zeuk interesa azaltzea.
- Aldez aurretik adostu zenbat denbora eman ahal izango duen interneten.





Gabonetako zuhaitzerako APAINGARRIAK

ZER BEHAR DUGU?

- ✂ ARGAZKIAK
- ✂ PAPEREZKO POLTSAK EDO KARTULINAK
- ✂ LAZOA
- ✂ BI ALDETARAKO ZINTA ITSASGARRIA
- ✂ ARTAZIAK
- ✂ ARKATZA EDO BOLIGRAFOA
- ✂ BOROBILAK EGITEKO PLANTILLA



Lehen urratsa:

Markoa egiteko, marraztu paperezko poltsa gainean edo kartulina gainean borobil bi. Plantilla erabiltzen baduzu denak tamaina berekoak egingo dituzu.

Bigarren urratsa:

Borobil biren arteko tartea apaindu nahi duzun moduan margotuz.

Moztu markoa osatuko duten borobilen kanpokaldea eta barrukaldea.

Hirugarren urratsa:

Itsatsi argazkia markoan eta moztu soberan gelditzen dena. Moztu bi aldetarako zinta itsasgarria paperezko zintaren luzera berera eta itsatsi.

Laugarren urratsa:

Apaingarriaren atzekalderako moztu beste paperezko poltsa edo kartulina zati bat.

Bostgarren urratsa:

Moztu lazoa nahi duzun neurrira sartu argazkia eta apaingarriaren atzekaldearen artean.

Bi aldetarako zinta itsasgarriarekin pegatu.



etxeko SUKALDARIA


Txokolatezko MICKEY MOUSE-ak

Gogoratu heldu baten laguntzarekin egin beharko dituzuela errezetok. Ziur nago oso jaki gozoak egingo dituzuela, on egin!

OSAGIAK

- ✓ Poltsa bat Oreo gaileta txikiak
- ✓ Poltsa bat Oreo tamaina normala

- ✓ Txokolate beltza
- ✓ Egurrezko txupatxus makiltxoak



NOLA EGIN

1. Urtu txokolatea maria bainuan.
2. Makiltxoaren punta sartu txokolate beroan eta ziztatu oreo gaileta handian (betegarri zurian ziztatu, gailetan ez, apurtu egiten da-eta). Utzi sikatzen hamar minutuz eta makiltxoa gailetara itsatsiko da.
3. Belarrietarako:
Oreo txikien oinarria txokolate beroan busti eta itsasi gaileta handian; utzi sikatzen beste hiru minutu.
4. Belarriak (gaileta txikiak) handira ondo itsatsita daudenean, sartu txupatxusa txokolatean eta utzi hozten zutik (loreentzako erabiltzen diren esponjetan sartu ditzazkezue, adibidez).



INTERNETEN...

ARIES

Datozen egunotan hozteko arriskua izango duzu, erropa gutxiegi jazten duzu, eta gero badakizu zer gertatzen den.

TAURUS

Gabonetako oporrak luzeak dira eta gauza asko egiteko aprobeztatu dezakezu. Ez ahaztu etxeko lanak, gero eskolara buelta xamurragoa egingo zaizu-eta.

GEMINIS

Olentzerori hori eskatu badiozu ez duzu zertan lotsatu. Bakoitzak nahi duena eskatu behar du eta bosta jola besteek zer pentsatzen duten!

CANCER

Gauza asko egingo zenituela zin egin zenuen. Bada, noiz egingo dituzu? Agian aho handiegia daukazu.

LEO

Barre algaraka pasako dituzu datozen asteak. Ondo pasatuko duzu, lagunekin une zoragarriak biziko dituzu eta etxekoak ere gustora izango dira zure ondoan.

VIRGO

Artista bat zara! Denetarik dakizu egiten eta, egia esan, ondo egiten duzu! Ez duzu pentsatu telebistara joatea?

LIBRA

Ez eman hainbesteko garrantzirik besteek esaten dutenari. Zu ziur bazaude egiten duzunarekin, aurrera! Askotan zein txarra den inbidia...

SCORPIUS

Gabonetako oporrak luzeak direla ados, baina egin nahi dituzun gauzen zerrendatik zeozer kentzea ondo egongo zen. 3 hilabeteko oporrak beharko zenituzke.

SAGITARIUS

Interneten ibiltzea ondo dago, baina gauza guztiakin bezala, neurria hartu horri ere. Badakizu zenbat gauza egin ditzakezun?

CAPRICORNIUS

Bai, bai, udaberriaren zain zaudela badakit, baina pazientzia apur bat izan beharko duzu, Neguan sartu berri gaude-eta!

ACUARIUS

Gogoan duzu nola pasa zenituen iazko Gabonak? Ohetik eta komunitik irten ezinda! Aurten zaindu zaitez, tripaki!

PISCIS

Zure zeinuak dioen bezala, badirudi egun bate-tik bestera arrain bihurtuko zarela! Igerilekura joatea ondo dago, baina egunero...!! Lehorrean egoten ere ikasi beharko zenuke.



www.zorionakzuri.net

Web orri honetan urtebetetze zoragarria ospatzeko moduko gauza pila bat aurkituko dituzue. Gonbidapenak egiteko irudiak agertzeaz gain, gonbidapenak nola idatzi ere azalduko dizue. Opariak egiteko ideiak ere ematen dituzte, eta baita umeentzat jai zoragarri bat antolatzeke hainbat ideia ere. Eta guzti hori biribiltzeko, pastelen errezeta mordoak aurkituko dituzue, oso erraz egiteko moduko errezeta gozo-gozoek!

umeekinsukaldean.blogspot.com.es

Web orri honetan ere errezeta gozo-gozoek nola egin ikasi ahal izango duzue. Jendeak bidalitako errezetak dira, modu errazean zuek umeok egiteko modukoak. Ziur nago zuen errezetak bidaltzeko aukera ere izango dela. Gainera, gauzak oraindik gehiago errazteko, bideo bidez azaltzen diren errezetak ere ikusi ahal izango dituzue. Aitzakiarik ez duzue beraz, etxekoei edo laguntxoei gauza gozo eta dotoreak prestatzeko!





MUNSTROA ETA IGELA, ABENTURA HANDIA

Munstroa eta Igela lagun handiak dira. Igelak uste du gauza guztietan aditua dela, eta Munstroa kankailu gizajo bat da. Biek ala biek bizitzako zailtasunei aurre egiten diete irudimenez eta ausardiaz. Liburu honetan Igela abenturazalea da eta Munstroarekin uharte batera joaten da txalupa batean. Lotan daudela, txalupa desagertu egiten da. Irudimena erabiliz, itzultzea lortzen dute.




IBAN, ZALDUN AUSARTA

Eskolako haur guztiak erdi aroko jai batera joan gara. Andereñoak garai hartako haurrak nola bizi ziren eta nola jostatzen ziren azaldu digu, baina zertan ari da Iban gazteluko dorre gorenean?




JOANES ETA BIOLETAREN BIHOTZA

Joanesek jostailu asko dauka: kartoizko zaldia, burdinazko tren, gomazko pilota eta plastikozko pitxiak. A! Kartoi eta paperezko ipuinak ere baditu. Baina Joanesek gehien maite duen jostailua Bioleta da, trapuzko panpina.



NUR ETA DORTOKEN UHARTEA

Oraingo emanaldi honetan Nur eta lagunak, Yi-Yi, Yidan, Hidehiro eta Ander Txina hegoaldeko Hainan uhartera joango zaizkigu. Han, dortoken ospitalea ezagutuko dugu eta abentura berri zirrargarriak biziko ditugu itsas-izarren, marrazoen, izurdeen, dortoken eta koloretako arrainen artean.



MARMAR ETA KARKAR

Marmar eta Karkar munduko troll higuingarrienak dira! Mukiak pitxerretan gordetzen dituzte, lizundutako gazta jaten dute eta sekula ez dira bainatzen! Zatoz eta primeran pasako duzu zinemara egiten duten bidaia zapoetsuan, bisitari beldurgarri bati aurre egiten diotenean eta eskolan sagu bihurtzen direnean!



KATUTXO ETA ELURRA

Katutxo eta Untxitxo oso lagunak ziren. Beti elkarrekin jolasten ziren. Batzuetan Katu familiaren etxean eta beste batzuetan Untxi familiarenean. Elurra egingo du eta gure laguntxoek primeran pasatuko dute!

HIRURENTZAKO TXABOLA

G

arai batean lehoiabar bat eta bi ahuntz, zaharra eta gaztea, txabola berean bizi ziren, baina animalia desberdinegiak ziren elkarrekin ondo konpontzeko. Ahuntzek talka egiteko zaletasuna

zuten eta lehoiabarrak erpeka egitekoa.

Nahaste txarra.

Laster hari ziren tirabirak. "Beti ibiltzen zara orroaka gauez", "Zuek txabola gorotzez betetzen duzue".

Egunero izaten zuten eztabaidaren bat. Baina hori ez zen larriena. Behin lehoiabarrak ahuntz bat hil zuen oihanean eta txabolara tatarraz eraman zuen, jateko astmoz. Ahuntz zaharra asko haserretu zen lehoiabarrak bera bezalako ahuntz bat hil zuela ikusita. Onartezina zen! Berak ez zuen haren haragirik jango. Ezta pentsatu ere!!!

Oso haserre zegoenez, oihaneko ehiztariarengana joan zen lehoiabar bat hil zezan eskatzera. Ti ta, garbi! Lehoiabarra hil eta gero, txabolara eraman zuen gorpua. Arnasestuka egin zuen bidea. Ahuntzarekin bizi zen lehoiabarrak hildako lehoiabarra ikusi zuenean asko haserretu zen. Onartezina zen! Berak ez zuen haren haragirik jango. Ezta pentsatu ere! Oso haserre zegoen, bai, eta erabat harrituta ere: nola hil ote zuen ahuntzak lehoiabar hura? Ahuntz gazteak hau erantzun zion: "zaharrak begitan hartzen bazaitu, zureak egin du, kaput, zulora".

Lehoiabarra dardarka hasi zen eta buru makur ihes egin zuen, ahuntzaren ahalmenak berdurtuta, ikaratuta, izututa.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

Harrez gero, lehoiabarrak eta ahuntzak elkarrengandik urruti bizi dira; lehoiabarrak oihanaren iluntasunean eta ahuntzak gizakiaren inguruan. Gizakia ez delako hain arriskutsua. Hori da behintzat euren ustea.



Olentzero maitea:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Besterik gabe, musu bat.

OLENTZER



zu margolari!